



Erronka:

Nola eman diezaiokegu balioa lurraldeko agente aktiboekin lankidetzan Bizkaian euskararen erabilera sustatzeko egiten dugun jarduerari?

Azpi-erronkak:

- Nola eskura, parteka eta zabal dezakegu ekosistemako eragileen jarduerari buruzko informazioa?
- Nola hobe genezake eragileen arteko lankidetzaren beren zerbitzu eta jardueren diseinuan, antolaketan eta komunikazioan?
- Nola hobe genezake komunikazioa eskaintza erabiltzaileentzat zuzenagoa, proaktiboagoa eta erakargarriagoa izan dadin?

Testuingurua:

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko **Euskara Zuzendaritza** euskararen erabilera biziberritzeko eta finkatzeko lanean ari da gizarteko hainbat esparrutan. Zehazki, laguntza ematen die euskarazko jarduerak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileei.

Euskara Zuzendaritzak, euskarazko jardueren eta zerbitzuen eskaintzaren ezagutza eta komunikazioa hobetzeko behararen aurrean, ekosistema ekintzaileari erronka bat jartzea erabaki du GovTech Bizkaia Programaren bidez.

Gaur egun, eragile bakoitzak modu independentean eta isolatuan jarduten du, batez ere, bere sare sozialen eta web-atariaren bidez, ekosistemako gainerako eragileekin sinergiak eta koordinazioa sustatu gabe. Egoera horren ondorioz, **jardueraren eskaintza zatikatuta eta sakabanatuta dago**, eta ez da modu eraginkorrean iristen Bizkaiko gizartera. Era berean, ez dago espazio digital komunik eskaintzari buruzko informazioa modu egituratu eta eskuragarrian integratzeko eta ezagutarazteko, bai eragileentzat beraienez, bai azken erabiltzaileentzat.

Ondorioz, uste da GovTech Bizkaia Programa **soluzio teknologikoak identifikatzeko eta probatzeko bide bat** izan daitekeela, alde batetik, **eskaintzaren ezagutza hobetzeko, bai ekosistemako eragileen mailan, bai herritarren aldetik**, eta, bestetik, **BFAk euskararen erabilera sustatzeko bultzatzen dituen jarduerak eta zerbitzuei balioa emateko.**

Helburuak:

Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, ekosistemako eragileen jardueraren **eskaintza komunikazio erakargarri eta eraginkor baten bidez ezagutu, partekatu eta balioetsi dadin**, honako hauei erantzuten dieten soluzioak:

- **Eragileek euskaraz egiten duten jarduerari buruzko informazio eguneratua lortzea.** Gaur egun, informazio hori sakabanatuta dago barneko eta kanpoko (RRSS, webgunea, memoriak...) hainbat datu- eta informazio-iturritan, informazioaren eskuragarritasuna zailduz.
- **Jardueraren eskaintzari lotutako informazioa gune digital bakar eta komun batean eskuragarri jartzea eta partekatzea,** ekosistemako eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzeko.
- **Informazioaren erabilera eta ezagutza erraztea, segmentatutako bilaketa-irizpideen bidez; hala nola:** jarduera mota, agentea, lekua, data eta abar.

Zer nahi dugu?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Errozkarako balioa duen proposamen argi eta esanguratsua
- Merkatuan trakzioa duen soluzio teknologikoa
- Egungo sistemekin eta prozesuan inplikaturako alderdi guztiekin integrazteko gai dena
- Soluzioa ezartzen eta inplementatzen erraza izatea
- Irisgarritasuna eta sinpletasuna: arlo digitalaren gaineko ezagutza maila desberdina duten pertsonentzako soluzio egokia
- Soluzioaren eskalagarritasuna

Prozesua eta data garrantzitsuak:


Proposamenaren erantzuna jasotzeko **azken eguna 2024/05/24** da.

Hautaketa-prozesuak honako urrats hauek ditu:

- Bost enpresa hautatzea, kontuan hartuta planteaturako soluzioa noraino egokitzen zaion errozkari
- Hautaturako bost enprekin elkarrizketak egitea, haien jarduera eta balio diferentziala gertuagotik ezagutzeko
- Hiru enpresa finalista hautatzea
- Hiru finalisten pilotatze-proposamena aurkeztea
- Enpresa eta soluzio irabazlea hautatzea



Soluzio irabazlea ezartzeko **pilotatzea 2024ko ekaina eta urria bitartean egingo da, 4 hilabeteko iraupenarekin:**



Erronkari edo prozesuari buruzko zalantzarik baduzu, idatzi e-maila helbide honetara info@bizkaiaok.eus

Zer lortuko duzu?

Pilotatzea ordaintzea (gehienez 15.000 euro).